

OSASUN SAILA**952**

AGINDUA, 2008ko urtarrilaren 23koa, Osasun sail-buruarena, itundu gabeko terapia-elkarteetan toxikomaniak sendatzeko 2008ko diru-laguntzetarako deia egiten duena.

Drogamenpekotasunen alorreko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak toxikomania gaixotasuntzat jotzen du; gainera, horren gaineko laguntza-tratamendua Administrazioaren zeregina dela ezartzen du, hain zuzen, bai sare publikoan bai ekimen pribatuetan dauden baliabideak koordinatuz drogazaleari gainerako biztanleei eskaintzen zaien arreta berbera bermatzeko, osasun- eta gizarte-alorrekoa, alegia.

Halaber, Legearen 30.2 artikuluan jasotzen denez, Administrazio Publikoak diru-laguntzak eman ahal izango ditu, indarreko legeriarekin bat.

Azaldutakoaren ondorioz, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.– Drogazaleei bideratutako banakako diru-laguntzetarako deia egiten da 2008. urterako, toxikomaniaren alorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu administratiboan jarduera terapeutikoak burutzen dituzten itundu gabeko zentroetan izandako desintoxicazio eta ohitura kentze tratamenduetako gastuak finantzatzeko.

2.– Onuradun pertsonari laguntzak emateko edo, hala badagokio, ordaintzeko, derrigorrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapideetan dagoen itzulketa-prozedurarik edo zehapen-prozedurarik ez izatea.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Agindu honetan aipatzen diren laguntzetarako, 2008. urtean, ehun eta hogeita hiru mila eta seiehun (123.600,00) euro bideratzen dira, horretarako EAEko Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontu-partidaren kargura.

3. artikulua.– Laguntza ukatzeko irizpide orokorrak.

1.– Eskabidea egin aurretik terapia-elkarte batean sartu izanak eskabidea ezestea ekarriko du.

2.– Toxikomaniaren alorrean jarduera terapeutikoak burutzen dituzten itundu gabeko zentroetan izandako

DEPARTAMENTO DE SANIDAD**952**

ORDEN de 23 de enero de 2008, del Consejero de Sanidad, por la que se establecen ayudas económicas para el tratamiento de toxicomanías en comunidades terapéuticas no concertadas durante el año 2008.

La Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias, concibe la toxicomanía como enfermedad e implica a la Administración Sanitaria en su tratamiento asistencial coordinando los recursos existentes tanto en el dispositivo asistencial de la red pública como la colaboración con la iniciativa privada al objeto de garantizar la atención a la persona afecta de toxicomanía en iguales condiciones que el resto de la población, en sus aspectos sanitarios y sociales.

De igual manera, el artículo 30.2 de la Ley posibilita la concesión de subvenciones por parte de la Administración Pública de acuerdo con la legislación vigente.

Por todo lo expuesto,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Se convocan para el ejercicio 2008 ayudas económicas individuales destinadas a personas afectas de toxicomanía que tengan vecindad administrativa en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y dirigidas a financiar los gastos por tratamiento de desintoxicación/deshabitación en centros no concertados con actividad terapéutica en el área de toxicomanías.

2.– La concesión y, en su caso, el pago de la ayuda a la persona beneficiaria quedarán condicionados a la inexistencia de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 2.– Recursos económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, durante el ejercicio 2008, la cantidad de ciento veintitrés mil seiscientos (123.600,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

Artículo 3.– Criterios generales de exclusión.

1.– El ingreso efectuado en comunidad terapéutica con carácter previo a la solicitud será motivo de desestimación de la misma.

2.– El tratamiento de desintoxicación/deshabitación en centros no concertados con actividad en el área

desintoxicazio/ohitura kentze tratamenduak osagarriak izango dira Osakidetzaren beraren baliabideekiko edota Osasun Sailak ituntzen dituen baliabideekiko.

4. artikulua.— Laguntzaren zenbatekoa eta berau ordaintzeko era.

1.— Erabakitzen den diru-laguntzaren zenbatekoak baremo bakarra izango du, alegia: tratamenduaren hilabete bakoitzeko, seiehun eta hogeita hamar (630,00) euro, eta gehienez bederlatzi hilabeteko iraupena izango du.

2.— Tokikomania jasaten duten pertsonen emandako laguntzen diru-zenbatekoak horien ordezkotza duten senitartekoen edo tutoretzaz arduratzen direnei emango zaizkie.

3.— Diru-laguntzaren zertarako bermatzeko beste biderik ez badago, eta betiere Agindu honetan aurreikusten den Batzordeak egoki baderitza, diru-laguntzaren zenbatekoa zuzenean terapia-elkarteari berari ordainduko zaio, gaixoa bertan dagoen bitartean.

4.— Agindu honetan 2008rako aurreikusten diren diru kopuruak, horretarako beren-beregi Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan ezarritako partidatik etorriko dira, eta aurrekontu horietan mugatukoari egokitu beharko zaizkie. Beraz, laguntzotarako jarritako zenbatekoa agortzen denean, ez da laguntzarik ematerik izango eta une horretatik aurrera xedapen honen indarra eten egingo da. Gorabehera hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

5. artikulua.— Laguntzaren luzamendua.

Agindu honetako 10.1 artikuluan aipatzen den Batzordeak ahalmena izango du, soilik aparteko kasuetan eta toxikomania jasaten duen gaixoaren gainbehera larria aztertu ondoren, Agindu honetan ezarritako epeak alde batera utzita, beste diru-laguntza bat bideratzeko.

6. artikulua.— Laguntzaren bateraezintasuna.

Diru-laguntza hauek jasotzen dituztenek ezingo dute Administrazio Publikotik helburu bereko beste inolako laguntzarik jaso.

7. artikulua.— Terapia-elkarte hartzaileen baldintzak.

1.— Diruz lagundutako gaixoak hartzen dituzten terapia-elkarteez ezinbestean bete beharko dute Osasun sailburuaren 1988ko martxoaren 30eko eta 1992ko azaroaren 9ko Aginduetan xedatutakoa, hau da, drogazaleen sorosketarako zentroak irekitzeko eta jardunean jartzeko administrazio eta osasun arloko baimenari eta horretarako eskatutako betebeharrei buruzko aginduetan xedatutakoa.

de toxicomanías habrá de tener un carácter complementario a los medios propios de Osakidetza-Servicio vasco de salud o concertados por el Departamento de Sanidad.

Artículo 4.— Importe de la ayuda y modalidad de abono de la misma.

1.— El importe de la ayuda económica acordada se establece en baremo de seiscientos treinta (630,00) euros por mes de tratamiento con una duración máxima de nueve meses.

2.— El importe económico de la ayuda concedida a la persona afectada de toxicomanía será abonado al familiar en quien delegue o a quien ejerza la tutoría.

3.— Cuando no concurra otra vía para garantizar el destino de la ayuda o en situaciones excepcionales y siempre tras valoración de la Comisión prevista en el artículo 10.1 la presente Orden, el importe de la ayuda podrá ser abonado directamente a la comunidad terapéutica durante el tiempo de permanencia de la persona beneficiaria.

4.— Los recursos económicos destinados al objeto de la presente Orden para el año 2008 procederán de la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y tendrá como límite el de la disponibilidad económica de los mismos. No procederá, por tanto, la concesión de nuevas ayudas una vez agotado el importe señalado para ellas, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia de la presente Disposición. Dicha circunstancia será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 5.— Prórroga de la ayuda.

La Comisión a que se hace referencia en la presente Orden podrá, en supuestos excepcionales y tras el estudio de la situación de deterioro de la persona afectada de toxicomanía, determinar la viabilidad de una nueva ayuda que exima de los plazos establecidos en la presente Orden.

Artículo 6.— Incompatibilidad de la ayuda.

La concesión de esta ayuda será incompatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda de la Administración Pública con igual destino.

Artículo 7.— Requisitos de las comunidades terapéuticas receptoras.

1.— Las comunidades terapéuticas a las que acudan las personas objeto de las ayudas económicas habrán de cumplir lo dispuesto en las Órdenes de 30 de marzo de 1988 y de 9 de noviembre de 1992, del Consejero de Sanidad, sobre autorización administrativo-sanitaria y acreditación de requisitos exigidos para la apertura y funcionamiento de los centros de tratamiento de toxicómanos.

2.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden terapia-elkarteek, tokian-tokian, zeinek bere lurraldean zentroei buruz indarrean dauden baimenak eta araudiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

3.– Toxikomaniak sendatzeko zentroek, beren autonomia erkidegoan irekitzeko eta jarduteko administrazio eta osasun arloko baimenik ez badute, egiaztatu beharko dute, Osasun Saileko Osasun Publikorako Zuzendaritzak emandako txosten arrazoituaren bidez, terapiaguntzarako egitura aski baten jabe direla.

8. artikulua.– Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Agindu honetako I. eranskinean agertzen den inprimakia beteaz egingo da eskabidea; inprimaki hori barik, ezaugarri berberak dituen beste bat ere bete ahal izango da.

2.– Tratamenduaren finantzazioa diruz laguntzeko eskabidearekin batera, zeinetan gaixoak bere borondatez terapia-programa betetzeko hitza emango baitu, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko tokian tokiko udalaren agiria, ondokoa egiaztatzen duena: eskabidea egiten den egunean gutxienez bi urte daramatzala gaixoak bertan bititzen.

b) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko mediku espezialistak egindako txosten medikoa, honako puntuak jasoko dituena:

– Gaixoaren aurrekariak, bilakaera klinikoa, egoera organikoa eta aurretik jaso dituen tratamenduak.

– Gaixoa itundu gabeko terapia-elkarte edo zentro batean desintoxikatzeko eta ohitura kentzeko programan sartzeko eskabidea zergatik egiten den.

– Proposatzen den terapia-elkartea.

c) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko gizarte-laguntzaile batek egindako gizarte-txostena.

d) Eskabidea egiten duenaren eta, 4 artikulua araberaren, diruz lagunduko den pertsonaren NANen fotokopiak.

e) Familiaren diru-sarrerak egiaztatzen dituen agiria (azken ekitaldiko errenta-aitorpenaren fotokopia, edo edozein erakundek egindako agiria, non familiaren urteko diru-sarrerak adierazten diren).

f) Xede horretarako beste diru-laguntzarik jasotzen ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena.

g) «Datu-alta/hirugarrena» izeneko agiria, laguntza jasotzailearen banku-datuak jasoko dituena, zeina Agindu honetako II. eranskineko inprimaki normalizatuan ageri baita.

2.– Las comunidades terapéuticas situadas fuera del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco habrán de acreditar el cumplimiento de las normas sobre autorización y funcionamiento de centros que les sean de aplicación en su ámbito territorial.

3.– Los centros para el tratamiento de toxicomanías que carezcan de la autorización administrativo-sanitaria de apertura y funcionamiento en el ámbito de su Comunidad Autónoma, habrán de acreditar la suficiencia de su dispositivo terapéutico-asistencial mediante informe razonado que emita la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad.

Artículo 8.– Solicitud y documentación a presentar.

1.– La solicitud se presentará cumplimentada en el impreso normalizado que aparece recogido en el anexo I a la presente Orden. Podrán suplir al mencionado impreso normalizado otros elaborados con idénticas características.

2.– La solicitud de ayuda para la financiación del tratamiento, en la que la persona afecta de toxicomanía acepta cumplir voluntariamente el programa terapéutico, irá acompañada de los siguientes documentos:

a) Certificado emitido por el correspondiente Ayuntamiento de la Comunidad Autónoma del País Vasco que acredite la residencia mínima de dos años, en la fecha de la solicitud.

b) Informe médico extendido por la o el facultativo especialista de Osakidetza-Servicio vasco de salud en el que se señalen:

– Antecedentes, evolución clínica y situación orgánica de la persona que demanda la ayuda económica y los diversos tratamientos a los que ha sido sometida.

– Las razones por las que se propone su inclusión en el programa de tratamiento «desintoxicación/deshabituación» en centros o comunidades terapéuticas no concertadas.

– Comunidad terapéutica de acogida propuesta.

c) Informe Social elaborado por una asistente social de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

d) Fotocopia del DNI de la persona demandante y de la destinataria de la ayuda según lo dispuesto en el artículo 4.

e) Documento acreditativo de los ingresos familiares (fotocopia de la declaración de la renta del último ejercicio o documento expedido por cualquier Organismo donde figuren los ingresos anuales de la unidad familiar).

f) Declaración jurada de no recibir otras ayudas económicas para el mismo fin.

g) Documento «Alta de datos/tercero interesado», cumplimentando el impreso normalizado que aparece recogido en el anexo II a la presente Orden donde figuren los datos bancarios de la persona destinataria de la ayuda.

Agiri horietaz gainera, eskatzaileak egoki deritzen agiri osagarriak ere aurkeztu ahalko ditu.

9. artikulua.— Eskabidea aurkezteko epea eta lekua.

Eskabideak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikorako zuzendariari zuzendu beharko zaizkio, eta aurkeztu, Osasun Sailaren bulegoetan aurkeztu ahal izango dira (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), hilabetero, lehenengo egunetik hamabosgarren egunera bitartean.

Horretaz gainera, eskabideak aurkeztu ahal izango dira, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako prozeduretako edozeinen bidez.

10. artikulua.— Ebazpena.

1.— Osasun Sailaren Osasun Publikorako zuzendariaren banan-banako ebazpenez emango dira diru-laguntzak, Osasun sailburuordeak berariaz izendatutako batzorde baten proposamena jaso ondoren. Batzorde horretako kideak honakoak izango dira: Osasun Sailaren Osasun Publikorako Zuzendariordetzako ordezkari bat, Laguntza Psikiatrikoko eta Osasun Mentaleko ardura-duna eta Osasun Mentaleko teknikari bat, azken biak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzukoak.

2.— Agindu honen arabera formulatutako laguntza-eskaerak ebazteko topeko epea hiru hilabetekoa da. Epea igaro eta interesatuari ebazpen adierazirik komunikatu ez bazaio, eskaera baietsizat joko da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. artikuluan ezarritako dauden ondorioetarako, Administrazioak espresuki ebazteko obligazioaren kalterik gabe.

3.— Diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eman edo ukatu, Osasun Sailaren Osasun Publikorako zuzendariaren ebazpen horren aurka errekurtsio arrunta aurkeztu ahalko zaio Osasun sailburuordeari, hilabeteko epean jakinarazten denetik, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan adierazitakoaren arabera.

11. artikulua.— Esleipen-irizpideak.

Laguntzak ematerakoan, Batzordea irizpide orokor hauetan oinarrituko da:

a) Laguntza eskatzen duen pertsonaren drogamenpekotasunaren eta egoera organikoaren bilakaera.

b) Familia- eta gizarte-giroa; batez ere, familiako erantzukizunak edo aparteko zailtasunak dituzten emakumeen kasuan.

c) Familiaren errenta-maila.

d) Drogamenpekotasuna, terapien bitartez, bertako zein itundutako baliabideekin tratatzeko ezintasuna.

e) Desintoxikatzeke antzeko programetan egon izana.

Además, la persona peticionaria podrá aportar la documentación complementaria que considere oportuna.

Artículo 9.— Plazo y lugar de presentación de la solicitud.

La solicitud de ayuda dirigida a la Directora de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco se presentará entre los días uno y quince de cada mes en las dependencias del Departamento de Sanidad (c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Asimismo, la solicitud podrá presentarse en los demás lugares y formas indicados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 10.— Resolución.

1.— Las ayudas serán concedidas por resolución individualizada de la Directora de Salud Pública del Departamento de Sanidad, a propuesta de una Comisión nombrada al efecto por el Viceconsejero de Sanidad que estará compuesta por un Representante de la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad, el Responsable de Asistencia Psiquiátrica y Salud Mental y un Técnico de Salud Mental, ambos de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

2.— El plazo máximo para resolver las solicitudes de ayudas formuladas al amparo de la presente Orden será de tres meses. Transcurrido dicho plazo sin que se notifique resolución expresa al interesado, la solicitud se entenderá estimada a los efectos de lo establecido en el artículo 43 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

3.— Contra la resolución de concesión o denegación de ayudas económicas de la Directora de Salud Pública del Departamento de Sanidad podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Sanidad, en el plazo de un mes, contado a partir de la fecha de su comunicación, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 11.— Criterios de adjudicación.

Para la concesión de las ayudas, la Comisión atenderá a los siguientes criterios orientativos:

a) Evolución de la drogodependencia y situación orgánica de la persona demandante la ayuda.

b) Contexto familiar y social, en especial de aquellas mujeres afectas de toxicomanía con cargas familiares o dificultades añadidas.

c) Nivel de rentas de la unidad familiar.

d) Imposibilidad de abordaje terapéutico de la toxicodependencia con recursos propios o concertados.

e) Reincidencia en programas similares de deshabituación.

f) Proposatu den terapia-elkartearen laguntza eta teknika aldeko bermea.

12. artikulua.– Laguntza eman zaion pertsonaren betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek nolahi ere ondoren adierazten direnak bete beharko dituzte:

a) Esleitutako diru-laguntza onartu beharko dute. Hori dela-eta, diru-laguntza esleitu egin zaiola jakinarazten dion adierazpena jaso eta hamabost eguneko epearen barruan, diru-laguntzaren onuradunek berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza jasotzeko adierazi den helbururako eta ez beste ezertarako erabili beharko du.

c) Deialdi honen bidez emandako diru-laguntzen arta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eginkizuna denez, jasotako diru-laguntzei buruz beraiek eskatutako argibide guztiak eman beharko zaizkie. Erakunde horiek ezin izango dute inola ere eskuratu pertsona onuradunaren espediente medikoa.

13. artikulua.– Ordaintzeko era.

Diru-laguntza honela ordainduko da:

a) Lehenengo hilekoa, laguntza ematearekin batera, aukeratutako terapia elkartean ingroa egiaztatu ondoren.

b) Gainerako hilekoak, gehienez bederatzi guztira, igarotako hilabete bakoitzaren hogeita hamarrean; betiere, gaixoa terapia-elkartean egon dela egiaztatzen duen agiria, 10.1 artikuluan aipatzen den batzordeak edota terapia-elkarteko arduradunak egina, jaso ondoren.

c) Baldin eta laguntzaren titularrak tratamenduko hilabete oso bat betetzen ez badu -aldaketak direla, utzi duelako edo bestelako arrazoiengatik- ordainduko den kopurua 21,00 euro izango da egonaldiko egun bakoitzeko; horretarako, batzordearen edota terapia-elkarteko arduradunaren ziurtagiria beharko da. Horren ondorioz, hitzartutako diru-laguntza baliogabetu egingo da.

14. artikulua.– Ez betetzeak.

1.– Aurreko artikuluko b) puntuan aipatzen den egiaztagiria, laguntzaren esleipenaren jakinarazpen datatik kontatzen hasita bi hilabetetan segidan bidali ezean, ulertuko da toxikomania jasaten duen pertsonak utzi egin duela terapia-elkartea eta, beraz, hitzartutako diru-laguntza baliogabetu egingo da.

2.– Tratamendua bertan behera uzteak edota adierazi zaion egunean zentroan ez egoteak, laguntza baliogabetzea ez ezik, aurrerantzean horrelako beste laguntzarik eskuratu ezina ere ekarriko du, gutxienez urtebetean zehar zentroa uzten denetik edota ebazpenaren egunetik, hala badagokio.

f) Garantía técnico-asistencial de la comunidad terapéutica propuesta.

Artículo 12.– Obligaciones de la persona beneficiaria de la ayuda.

La persona beneficiaria de las ayudas reguladas en la presente Orden deberá cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si, en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención, la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que esta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria. En ningún caso estos Organismos tendrán acceso al expediente médico de la persona beneficiaria.

Artículo 13.– Forma de pago.

El pago de la ayuda concedida se efectuará de la siguiente manera:

a) El pago de la primera mensualidad en el momento de la concesión de la ayuda, tras la confirmación de ingreso en la comunidad terapéutica elegida.

b) El pago de las siguientes mensualidades, hasta un máximo de nueve, se efectuará a treinta del mes vencido, previa justificación de permanencia de la persona beneficiaria en la comunidad terapéutica emitida por la Comisión a que se hace referencia en el artículo 10.1 o responsable de la comunidad terapéutica.

c) En el supuesto de que la persona titular de la ayuda no cumpliera la totalidad de algún mes de tratamiento, por causas de traslado, abandono u otras, el importe abonado sería de 21,00 euros, por día de estancia, previa certificación de la Comisión o responsable de la comunidad terapéutica procediéndose a la anulación de la ayuda acordada.

Artículo 14.– Incumplimientos.

1.– La no emisión del justificante a que se refiere el punto b) del artículo anterior durante dos meses a partir de la fecha de notificación de concesión de la ayuda será interpretado como renuncia a la misma por parte de la persona afecta de toxicomanía, por lo que procederá la anulación de la ayuda acordada.

2.– El abandono del tratamiento aconsejado o la no incorporación de la persona beneficiaria en la fecha indicada acarreará, además de la anulación de la ayuda, la imposibilidad de acceder a una nueva ayuda por tal concepto durante, al menos, un año contado desde el abandono o fecha de resolución, en su caso.

3.– Onuradunak, eman zaion dirua laguntzaren helburuaz beste ezertarako erabiltzen badu, itzuli behar izango ditu eskuratu duen kopurua eta legezko interesak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutakoaren arabera. Diru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lebenengoa.– Guztira 2. artikuluan ezarritako diru-kopurua handiagotu ere egin liteke, betiere, Osasun Publikorako zuzendariak diru-laguntzak emateko banan-banan ebazpena eman aurretik; eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren ikusi behar da, bai eta Osasun Sailak beste programa batzuk burututakoan aurrekontuko diru-kopururik ahitu gabe geratu ote den; kopurua aldatzen bada, horren berri emango da.

Bigarrena.– Laguntzak emateko kontsignatutako kreditua agortuz gero, eta zirkunstantzia horri publikitate emateko asmoz, Osasun Saileko Osasun Publikoko zuzendariak administrazio-ebazpena egingo du, kreditua agortu den data azalduz. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; horrik aurrera ez da inongo eskaerarik onartuko.

Gainera, ordurako aurkeztu eta tramitazioan egon eta, asignatutako aurrekontu-dotazioa agortu dela-eta, atenditu gabe geldituko diren eskaerak, bazter geldituko dira, Osasun Publikoko zuzendariaren administrazio-ebazpen baten bidez.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.– Prozedurari buruz agindu honetan jaso ez diren kasuetan azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko da, betiere, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkerari jarraituz.

Bigarrena.– Osasun Sailaren Osasun Publikorako zuzendariari ahalmena ematen zaio agindu hau garatu eta betetzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 23a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.^a INCLÁN IRIBAR.

3.– En los casos en los que la persona perceptora de la ayuda incumpliera el destino de la misma vendrá obligada a reintegrar los importes percibidos así como sus intereses legales, de conformidad con lo previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. Los citados reintegros tendrán consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– El importe total consignado en el artículo 2 podrá ser ampliado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disposiciones económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad y con carácter previo a las Resoluciones individualizadas de concesión de la Directora de Salud Pública, dándose publicidad a la misma.

Segunda.– En el supuesto de que se agotase el crédito consignado para la concesión de las ayudas, y al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, por la Directora de Salud Pública del Departamento de Sanidad se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco, no admitiéndose solicitud alguna que se presentase a partir de tal momento.

Además, las solicitudes que estuvieran ya presentadas y en tramitación, que no pudieran ser atendidas por agotamiento de la dotación presupuestaria asignada, serán denegadas, por tal motivo, mediante resolución administrativa de la Directora de Salud Pública.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todos aquellos aspectos procedimentales no previstos en la presente Orden, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Segunda.– Se faculta a la Directora de Salud Pública del Departamento de Sanidad para dictar las instrucciones necesarias para el desarrollo y cumplimiento de la presente Orden.

Tercera.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de enero de 2008.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.^a INCLÁN IRIBAR.

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO ESKABIDEA ITUNDU GABEKO TERAPIA-ELKARTEAN TRATAMENDUA EGITEKO

1.– Gaixoaren datuak:

Abizenak eta izena: Helbidea: Herria: Posta-kodea: Telefonoa: NAN zk.: Jaioteguna: Egoera zibila:

2.– Eskatzen dut:

Diru-laguntza bat, itundu gabeko terapia-elkarteetan toxikomaniak sendatzeko tratamendua jaso ahal izateko, Osasun sailburuaren 2008ko _____ren _____(e)ko aginduaren babesean. Hitza ematen dut, halaber, desintoxikatzeko terapia-programa neure gogoz beteko dudala eta ez dudala helburu horretarako beste administrazio publikoetatik inolako diru-laguntzarik jasotzen.

3.– Eta aitortzen dut:

Ez dudala inongo auzirik edo debekurik diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzen utziko ez dionik.

4.– Senitartekoari edo tutoreari emandako baimena:

Osasun sailburuaren 2008ko _____ren _____(e)ko Aginduan ezarritako laguntza-eskatzailea naizen aldetik, nik, _____ jaunak/andreak _____ (NAN zk.) baimena ematen diot _____ jaunari/andreak _____ (NAN zk.) senitarteko edo tutore gisa, itundu gabeko terapia-elkarteetan toxikomaniak sendatzeko tratamendua finantzatzeko Osasun Saileko Osasun Publikoko zuzendariaren diru-laguntza jaso dezan.

_____ (e)n, 2008ko _____ren _____(e)an.

Eskatzailearen onespena,
Izpta.:

Hirugarren baimendua
Izpta.:

OSASUN PUBLIKOKO ZUZENDARIA
OSASUN SAILA

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruz, abenduaren 13an emandako 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten da inprimaki honetan ematen dituzun datu pertsonalak «Fineteco» deritzon fitxategian sartuko direla, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzaren erantzukizunaren pean, bere helburua hauxe baita: pertsona fisikoen patologia gainditzeko diren diru-laguntzak ematearen kudeaketa.

Nahi izanez gero, sarrera, zuzenketa, indargabetze eta oposizio eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzara (Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) idazki bat bidaliz.

ANEXO I

SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA PARA EL TRATAMIENTO EN COMUNIDAD TERAPÉUTICA
NO CONCERTADA

1.- Datos de la persona que solicita la ayuda:

Apellidos y nombre:	<input type="text"/>		
Domicilio:	<input type="text"/>		
Localidad:	<input type="text"/>	Código postal:	<input type="text"/>
Teléfono:	<input type="text"/>	DNI:	<input type="text"/>
Fecha de nacimiento:	<input type="text"/>	Estado civil:	<input type="text"/>

2.- Solicita:

Ayuda económica para el tratamiento en comunidad terapéutica no concertada, aceptando cumplir voluntariamente el programa terapéutico para la desintoxicación/deshabitación, al amparo de la Orden de _____ de enero de 2008, del Consejero de Sanidad, declarando no percibir subvención o ayuda económica alguna para el mismo fin de otra Administración Pública.

3.- Y Declara:

Que no se halla incurso en causa o prohibición alguna que lo inhabilite para acceder a subvenciones o ayudas públicas.

4.- Autorización a familiar o persona que ejerce la tutoría:

D./Dña.: _____ con DNI n.º _____, en calidad de solicitante de ayuda económica establecida mediante Orden de _____ de enero de 2008 del Consejero de Sanidad, autoriza a D./Dña.: _____, con DNI n.º _____ en su calidad de familiar o tutor a percibir la ayuda que le sea concedida por la Directora de Salud Pública del Departamento de Sanidad, con destino a la financiación de tratamiento en comunidad terapéutica.

En _____, a _____ de _____ de 2008

Persona solicitante
Fdo.:

Acepto, la persona autorizada
Fdo.:

ILMA. SRA. DIRECTORA DE SALUD PÚBLICA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le comunica que los datos personales que Vd. aporta en este impreso serán incluidos en el fichero «FINETECO», bajo la responsabilidad de la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y cuya finalidad es la gestión de la concesión de ayudas económicas a personas físicas para superar su patología.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito a la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, en c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

II. ERANSKINA / ANEXO II

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESATUA <i>ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO</i>	
HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK <i>DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO (A)</i>	
(1)	NAN/IFK <i>DNI/CIF</i>
(2)	Bi abizenak eta izena / Sozietatearen izena <i>Dos apellidos y nombre / Razón social</i>

HELBIDERATZE-DATUAK <i>DATOS DE DOMICILIACIÓN (B)</i>	
Helbidea <i>Domicilio</i>	
Posta kodea <i>Código postal</i>	Udala <i>Población</i>
Lurraldea <i>Provincia</i>	

BANKUAREN DATUAK <i>DATOS BANCARIOS (C)</i>	
(1)	Bankua <i>Banco</i>
(2)	Agentzia <i>Agencia</i>
(3)	K.D..... <i>D.C.</i> K/Korrontea <i>C/Corriente</i>
(4)	Jabea <i>Titular</i>

Bankuaren adostasuna <i>Conforme banco</i>
Sinadura eta zigilua <i>Sello y firma (D)</i>

Hirugarrenaren adostasuna <i>Conforme tercero</i>
Sinadura eta zigilua <i>Sello y firma (E)</i>

Sailaren onespina <i>VºBº departamento u Organismo</i>
Baimendutako sinadura <i>Sello y firma autorizada (F)</i>

Kontabilitatearen onespina <i>VºBº contabilidad</i>
Baimendutako sinadura eta zigilua <i>Firma autorizada (G)</i>